

ketetatik kanpo uztea erabaki» dute. Era berean, haurrentzako egin ohi duten irrati lehiaketa kendu egin dute «asperturik zeuden-eta haurrak beti gauza bera egiten». Horren ordeztu, haur emanaldi gehiago sartu dituzte egitarauan.

Gaur aktoreen egunarekin hasiko dira topaketak, haur eta helduentzako antzerkia ikusteko aukera emanez. Hikaren *Ai ama!*, Ramon Agirreren *Ondo esan beharko*, Kanpingags-en *Biblia osoa (gutxi gorabehera)*, eta *Hau paraderoa*, Elena Irureta, Loli Astoreka, Aizpea Goenaga eta Eli Elizondoren lana dira helduentzako eskaintzen artean. «Helduentzako obrekina batera saiatu gara era guztietako publikoarentzat antzezlanak ekartzen, familia osoa joan dadin ikuskizunetara», Gorrotxategiren arabera. Horri erantzuz

EGITARAUA

GAUR

19:00: Aktorearen Eguna. Kontxu Odriozolari omenaldia.

BIHAR

19:30: Hika taldearen *Ai ama!* antzezlan.

AZAROAK 15

21:30: Ramon Agirrek *Ondo esan beharko* obra taularatuko du

AZAROAK 16

21:30: Kanpingagsen *Biblia osoa (gutxi gorabehera)* emanaldia.

AZAROAK 17

18:00: Dar Dar taldearen *Pinotxo*. Txotxongiloak aktoreekin nahasturik. Haurrentzako.

AZAROAK 23

21:30: Itsasi euskal kultur taldearen

nez, Dar Dar taldearen *Pinotxo* eta Bederen Bat-en *Titibilti* antolatu dituzte —estrainaldiak dira—.

emanaldi berezia 25. urteurrena dela eta. Izarraitz pilotalekuan.

AZAROAK 24

18:00: Txaloren *Natatxa* ikuskizuna haurrentzat.

AZAROAK 29

21:30: Iraulio Pantallone Band taldearen *Ai Martin* bertso antzerkia.

AZAROAK 30

21:30: *Hau paraderoa*, Elena Irureta, Loli Astoreka, Aitzpea Goenaga eta Eli Elizondoren antzezlan.

ABENDUAK 1

18:00: Bederen Bat taldearen *Titibilti* ikuskizuna haurrentzat. Antzezlaren emanaldi guztiak Soreasun izango dira

Amateurretan, berriz, Iraulio Pantallone Banden *Ai Martin* bertso antzerkia izango da emanaldi bakarra. «Goaz taldea

etortzekoa zen, baina egitaraua itxi baino astebete lehenago esan ziguten ezin zutela etorri. Haien ordeztu jarri dugu *Ai Martin* lana. Bertsoa, musika eta antzerkia uztartzen dituen obra dibertigarria da». Amateur gehi-go programatu nahi lituzke Gorrotxategik, «horren aldekoa naiz, baina ez da erraza. Saiakera egin dugu behintzat», Gainerakoan, Aktore Egunari «tarte berezia» egin nahi izan diote. Kontxu Odriozolari omenaldian, Pako Aristik berari buruz idatzi duen liburua aurkezteaz gainera, solasaldia egongo da Aitzpea Goenaga, Pedro Otaegi eta Arantxa Gurmendiren eskutik. Lakrikum talde azpeitiarrak, berriz, antzezle izan aurretiko pasarteak gogoratuko ditu umorezko antzezlanean. Bihar Hikaren *Ai ama!* Obrak osatuko du lehen asteburuko eskaintza.



EGUNKARIA

Ainhua Aierbe, Pilar Rodriguez eta Miren Gojenola, *Ai ama!* antzezlanean. Bihar igoko dira Soreasuko taula gainera.

Tentazioak ekoitziriko 'Metxa' antzezlanak datorren urteko otsailean ikusiko du argia

E. Ezkerra | BILBO

Aurki liburutik agertokira salto egingo du Metxak, Koldo Izagirrek sorturiko Agirretarrak. Eneko Olasagasti —Tentazioak— arduratuko da aurrekoa betetzeaz, Korrikaren harira AEK-k antolatutako bekaren bitartez. Zuzendariak haren lehendabiziko deialdian nagusitu zen, *Metxa esaten dioten Agirretar baten ibili herrenak*-etik abiatutik eginiko bertsioarekin. Dagoneko gidoia erabat amaiturik dauka, eta emanaldiak iristea besterik ez zaie falta. Hain

zuzen, estreinaldia datorren urteko otsailean izango da eta hortik martxoa bitartean hamar bat saio eskainiko dituzte. Olasagastik atzo azaldu zuenez, *Metxak* jatorrizko testuaren alegia kutsua mantenduko du. «Azken finean, Metxak Agirretarrekin alegiazko mundu bat sortzen du. Irudi horretaz baliaturik Metxak sentimendu kolektiboaz egiten du gogoeta: hain beharrezkoa duen kolektiboa, baina, era berean, ez du horlerokatu nahi».

Gaur egungo egoeraren ispilu izan daitekeen kontakizun-

nak, antzerkiko bertsioan, Metxa ez ezik bigarren pertsonaia nagusi bat izango du: haren iloba Beñat. «Beñaten bitartez transmisioaren garrantzia azpimarratu nahi izan dut», zioen Olasagastik. «Metxak irakasleek, gurasoek, ingurukoek kontatu nahi ez dioten hori azalduko dio Beñati. Beraien artean sortuko den harremana, horixe izango da antzezlaren mamia». Jose Ramon Soroizek jokatu du Metxaren rola, eta Anjel Alkainek, Aitzpea Goenagak eta Ainara Gurrutxagak obratik igaroko diren zenbait Agirretar gor-

puztuko dituzte. «Beñaten rola falta zaigu; hura beteko duen 12 urteko mutikoaren bila nabil oraindik», azaldu zuen Olasagastik.

Musika, ezinbestekoa

Testuarekin batera, musikak toki berezia beteko du *Metxa*-n. «Izagirrek berak Koldo Tapiarekin antolaturiko *Agur Intxorta maite* ikusi ostean bi mundu horiek, musikala eta testuala lotu zitezkeela pentsatu nuen, eta halaxe egin dut». Beraz, obran barrena lan horretatik ateratako hainbat kantu entzun ahal izango dira.

Bere obra oholtza gainean ikusiko dela-eta «harrotasun handia» sentitzen duela esan zuen Izagirrek.

euskararen
donostia
patronatu



kultur
etxeak

•• CASARES

Darieta bidea 1
Tel.: 943 351149
faxa: 943 354046
e-mail:
casares@donostia.org

•• LARROTXENE

Intxaurren 57
Tel.: 943 291954
faxa: 943 292746
e-mail:
larrotxene@donostia.org

•• INTXAURRONGO BERRI

Gaztela kalea 2
Tel.: 943 279343
faxa: 943 275241
e-mail:
larrotxene@donostia.org

•• LOIOLA

Aralar 17
Tel.: 943 454605
faxa: 943 473498
e-mail:
loiola@donostia.org

•• OKENDO

Zemoria 10-12
Tel.: 943 290672
faxa: 943 290721
e-mail:
okendo@donostia.org

•• LUGARITZ

Heriz pasealekua 20
Tel.: 943 310780
faxa: 943 310782
e-mail:
lugaritz@donostia.org

•• EGIA

Baztan hiribidea 21
Tel.: 943 291514
faxa: 943 287219
e-mail:
egia@donostia.org

•• ERNEST LLUCH

Anoeta pasealekua 7
Tel.: 943 481919
faxa: 943 481866
e-mail:
amara@donostia.org

•• ALTZAKO

GIZARTE ETXEA
Larratxo pasealekua, 55
Argibideak:
Casares kultur etxean